



## **DONOSTIKLUBA 2014**

### **Urtarrila-Ekaina**

Donostiklubak ziklo berri bat zabalduko du honako helburuekin: kalitatezko musika independentearen aldeko zaletasuna sustatu, formatu ertaineko emanaldiak duin egin eta hiriko musika eskaintza deszentralizatu, izen handiko artistak Kultur Etxe eta klubetara eramanez.

Donostiklubak zuzeneko musikaren naturaltasuna errekuperatu nahi du, klubaren jitea, non musikarekiko gustua arnasten den; su txikian egindako ekoizpen xumeak, musika distantzia motzetan...Musikari eta publikoaren topaleku izan nahi du...Hiri honetako osasun musikala elikatu apaltasunez formatu txiki edo ertaineko kontzertuekin, baina kalitate edo sormenez XXL direnak... eta egunez egun egin nahi dugu, urte osoan zehar.

Udako betekadez edo unean uneko ekitaldiez gain Donostiklubak eguneko menua izan nahi du urtean zehar. Hiriko musika elikadura hobetuko duena eta musika kateak eskatzen duen erdi mailako programazio eta zirkuitoaren katebegi hori izan nahi du, bertako taldeek hazteko eta garatzeko aukera izan dezaten eta hiriko publikoak nazioarteko musika independenteaz goza dezan bere egunerokotasunean.

Reggae, hip hop, black music, underground edota soul zaleak diren hiriko kultur taldeen autogestioa ere bultzatu nahi dugu, beraien jaialdiak espazio publikoetan burutzeko aukera izan dezaten. Lagundu nahi diegu Jammin Reggae, Mojo Workin, Lurrazpiko Festa edota Soul Supremereen gisako hitzordu klasikoekin jarrai dezaten.

Aipatutako ideia eta baloreak helaraztea da gure asmoa eta ondo eginez gero, hiri honetan musikaz gozatzeko aukera paregabeak izango ditugu.





## **LE BUKOWSKI 25. URTEURRENA**

**LOS SEPARATISTAS + SEÑOR NO + MAKALA JAZZ BAND + JAVIER SUN  
ANTZOKI ZAHARRA**

2013 Abenduak 27

20:00

## **AUDIENCE + LUKE ARMSTRONG**

**ANTZOKI ZAHARRA**


2013 Abenduak 28

20:00 9€

Badirudi ez dela hain erraza proiektu bat non hasi eta non bukatzen den jakitea. Audiencekoek, behintzat, aspaldi egin diote uko bilaketa horri; bideari ekinez egiten ikasi dute. Oraingoan 'Mistress Games' dakarkigute, hurrengo zerbaiten abiapuntu badenaren susmo nabarmenari josia gainera.

'Mistress Games' neurritz lan ertaina den arren, Audience bere txikitasunean handi azaldu zaizkigu berriro ere, eroso, handikerian txiki agertzetik urrundu nahian edo. 12 urte dira jada lehen aldiz batu zirela, eta bada oraindik ikusmina lan berri baten aurrean. Lehen aldia ote

dirudi... berriz ere? Gutariko batzuentzat horrela da bai, eta itxurak egiten hasteko berandu da jada.





## **OBITS**

**BUKOWSKI**

2014 Urtarrilak 17

20:00 12€/15€

Obits taldeak ez du inoiz huts egiten. Ekialde Kostako talde aipagarriena gurekin egongo dira beste behin ere. Haien bostgarren bisita izango da diska berria atera berri dutelarik: Bed & Bugs (Sub Pop 2013) pasa den Irailaren 10ean kaleratua..



<http://www.obitsurl.com/>

## **QUIQUE GONZALEZ**

**GAZTESZENA**


2014 Urtarrilak 24

21:00 19€

Quique González kantari, gitarra-jotzaile eta konpositorea erreferentzia bat da rock zarata handirik gabea maite dutenentzat. Delantera Mítica diskoa aurkeztuko du, Brad Jones-ekin grabatutako bigarrena.



<http://www.quiquegonzalez.com>





## THE SADIES + MOBYDICK BAND

GAZTESZENA  
2014 Urtarrilak 25  
22:00 14€



The Sadies-en musika garage, psikodelia, rockabilly surf eta bluegrass nahasketa bat da; ez baitaki zer den birziklatzea. Unean uneko taupadan dabil. Malgua eta aldakorra da kanpotik, ondo mamitua barrutik. Horri esker, rockaren jarraitzaile botadunen eta gorbatadun finen gogokoenen artean kokatu dira, eta country alternatiboaren (Neko Case, Jon Spencer, Jon Langford, Andre Willians,

John Doe eta abarren) banda laguntzaile behinena bihurtu.


<http://thesadies.net/>

**IZAL + SECOND**  
INTXAURRONDO K.E.  
2014 Urtarrilak 30  
21:00 15€

Izal 2010ean sortu zuten Mikel Izal bokalista eta konpositoreak, Alejandro Jordák (bateria), Emanuel Pérezek (baxua), Alberto Pérezek (gitarrak) eta Ivan Mellak (teklatuak). Batez ere kalitate melodiko eta lirikoak dute xede, eta horrekin batera garunak erraz eta gozo irents ditzala.



<http://www.izalmusic.com/>



**donostiakultura.com**



## LURRAZPIKO FESTA

GAZTESZENA

2014 Otsailak 8

20:00 15€

## MODE MODERNE + COSMETICS

BUKOWSKI

2014 Otsailak 27

20:00

Kartel bikoitza gaur egun Kanadan pisu handia duten bi bandekin.



[http://capturedtracks.com/catalog/by\\_artist/cosmetics-sleepwalking-7mp3/](http://capturedtracks.com/catalog/by_artist/cosmetics-sleepwalking-7mp3/)

<http://modemoderne.bandcamp.com/>

## PERRO


KOMPLOT

2014 Martxoak 08

22:00 7€



Hogeiurtekoen talde berri baten jaiotzaren aurrean gaude; shoegaze eraginak eta noisea, punk espiritua eta pop independentearen poztasuna nahasteko konplexugabeak.






**MOJO WORKIN'**  
GAZTESZENA  
2014 Martxoak 14 eta 15  
23:00, 21:00  
20€/15€/10€



**NEIL HALSTEAD Vs VELVET UNDERGROUND & NICO + KEZIA**  
INTXAURRONDO K.E.  
2014 Martxoak 21  
22:00 12€



90eko hamarraldi hasieratik, Neil Halstead britainiarra beti egon da ondo kokatuta artista errespetatuen lepotik dominak zintzilikatzen dituzten inkestetan. Slowdive shoegaze taldeko kide izan ondoren, britainiar amerikarren bidetik jo du Mojave 3-rekin eta bakarkako proiektuarekin.





## THE STRANGLERS + NIÑA COYOTE ETA CHICO TORNADO

INTXAURRONDO K.E.

2014 Apirilak 05

22:00 22€

The Stranglers-en errepertorioa hain da zabala non esan baitaiteke haietaz ezen Ramonesek eta Patti Smithek 1976an emandako britainiar kontzertuetako teloneroak izan zirela, baina baita 2012an Giants argitaratu zutela ere, hamazazpigarren diskoa, nostalgiarik gabea eta odol borborkariz betea.

<http://www.thestranglers.net/>

## NIÑA COYOTE ETA CHICO TORNADO

Niña Coyote eta Chico Tornado donostiarrak dira eta lokal batean egindako milaka inprobisazio orduren kumea. Taldea Koldo Soret-ek (Surfin kaos, Utikan, Mugatik, o Chico boom entre otras) eta Ursula Strong-ek (Zuloak, Las Culebras) osatzen dute.



## EAGULLS + YELLOW BIG MACHINE

BUKOWSKI

2014 Apirilak 12

22:00 9€



Leedsen oinarritutako post-punk ingelesetik irtearritako zartada samindua. Mugimendu pare batek beren lehen luzeko debuta ahalbidetu dute, izen bereko diskoa emanik, eta Donostian ikusgai.





**BARZIN + JAN FOL**  
UNDERMOUNT  
2014 Apirilak 19  
12:00



**BIGOTT + MURSEGO**  
GAZTESZENA  
2014 Apirilak 30  
22:00 15€




Bigott industria musikaleko oinarriak lehertzen jarraitzen du bere armak erabiliz: urteko disko bat erritmoan; barrez lehertzeko bideoklipak; zuzeneko sinestezinak; elkarrizketa ia beti xelebreak; eta orokorrean, beren bizitza ikusteko eta bizitzeko moduarekin. Bigott berezia da oso.

Pertsona iheskorraz haratago, talentu handiko artita baten aurrean

topatzen gara, bat-batekotasunez betea, aurreiritzirik gabea, eta momentu oro nahi duena egitearen sentrazio osasuntsu zein kutsakorra duena.

Comedienne ondoren, Bigott da bere proiektu musikal berrirako Borja Laudo zaragozarrak aukeratutako izena.



**donostia**kultura.com



# Donosti Kluba

*Donostiako Klubaren Nazioarteko Musika Jaialdua - Festival Internacional de Musica de Club de Donostia*

## **SOUL SUPREME**

OKENDO K.E.

2014 Maiatzak 30 eta 31

## **FESTIBAILA**

GAZTESZENA

2014 Ekainak 6

## **JAMMIN REGGAE**


GAZTESZENA

2014 Ekainak 7

## **MUSIKAREN EGUNA: BELAKO**

LOIOLA KALEA

2014 Ekainak 23





## MUSIKAGELA: BERTAKO MUSIKA TALDEEKIN KONTZERTUAK

### URTARRILA

3/1 KELLY'S (GROS): URDERNEED 20:00

16/1 BULLY (AIETE): JUNE CALSOR 19:00

24/1 DUIT (ANTIGUO): JANE FOL: 20:00

### OTSAILA

7/2 CALEDONIAN (GROS): TRISTAN CROWLEY 20:00

21/2 VIA FORA (AMARA) LUKE ARMSTRONG 20:00

### MARTXOA


7/3 BUKOWSKI (EGIA): THE ROCK SIFREDI BAND 20:00.

14/3 LA TABERNA (EGIA): UNDERNEED 20:00

### APIRILA

11/4 BUKOWSKI (EGIA): FRANK 20:00

25/4 DARIETA (ALTZA): EL OCTAVO ÁRBOL 20:00





## DONOSTIKLUBA MUSIKA KOLEKTIBOAK 2014

### LURRAZPIKO FESTA 2014 – AYO SILVER –otsailaren 8an. (Gazteszena)

Lurrazpiko Festa sendotzea da bigarren edizio honen helburua. Kontzertu andana egitea baino, Gazteszena proposamen berri, interesgarri eta freskoen erakusleihu izatea nahi dugu. Horretarako karisma, balio eta nortasun artistikoa duten artistak ekarrik ditugu. Finean, lurrazpiko arte hutsa!

### MOJO WORKIN' – GURE GAUZA KOLEKTIBOA - martxoaren 14 eta 15 (Gazteszena)

Mojo Workin festibala Donostian zenbait musika estiloen inguruan dagoen hutsunea betetzeko sortu zen, besteak beste, blues, Rhythm and Blues edo soul estiloak jorratzen ditu. Festibalak bi egun irauten du, eta kontzertu eta dantza egiteko Dj sesio ugari ekarriko ditu hirira.

### SOUL SUPREME – BELTZA RECORDS – maiatzaren 30-31 (Okendo)

Soul-ik hoberena, Donostira datorkigu Donostikluba Zirkuituko Soul Supreme ekitaldiarekin. Okendo aretoan, hainbat Mj's-ren musika elkartuko da, asteburu batez, soul, musika betza eta dantza musika hoberenaz gozatzeko.



### JAMMIN REGGAE– REVOLUTIONARY BROTHERS – ekainaren 7 (Gazteszena)

### SURFILM FESTIBAL – SURFILM FESTIVAL –ekainaren 6. (Gazteszena)

